



ABONO EGOKITUA

7. BALIABIDEAK

Gure enpresan funtsezko baliabideen bidez bezeroengana iritsiko gara, bezeroarekiko harremana mantenduko dugu eta diru sarrerak lortuko ditugu.

Horretarako, lau baliabide mota erabiliko ditugu: baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak.

1. Baliabide fisikoak eskuratu beharko ditugu nahitaez: makinak, lokala (laborategia), abonoa sortzeko tresnak, abonoa egingo duten pertsonak, nekazarien lurak ikertuko dituzten langileak...

Laborategia San Markos zabor gunean kokatuko dugu han daudelako gure abonoa sortzeko baliabideak (material edo zabor organikoa) eta horrela, ez dugu baliabideen garraioan hainbeste diru gastatuko.

Gure lokala, Errenteriako industriagunean ezarriko dugu, izan ere, gure laborategia gertu daukagu eta inguruan nekazari asko daude. Honek guztiak, gure garraioan gastatuko dugun kostua murriztuko du.

Lokala, makineria eta laborategia erosi edo alokatu kostuetan erabakiko dugu errentagarritasun atariaren bidez.

Gure enpresaren web orrian gurekin harremanetan jartzeko telefono bat egongo da eta hortaz aparte, "ohiko galderak" izeneko sail bat egongo da bezeroek dituzten galdera gehienak argitzeko, baina, hala ere, beraien galderak web orrian argituak ez baldin badaude, guri deitzeko aukera izango dute nahi dutena galdetzeko eta beraien zalantzak argitzeko.

Bestalde, gure bulegoan telefono deiak hartu, korreo elektronikoaren bidez bidaltzen dizkiguten mezuak erantzun, abonoa bezeroengana iritsi bitartean gordetzeko biltegi txiki bat... izango dugu.

2. Baliabide intelektual ezberdinak erabiliko ditugu: Marka propioa izango dugu lehiakideetatik bereiztu dadin eta bezeroak gure produktua bereiztu dezaten.

Gainera, Egile-eskubideak ezarri beharko ditugu gure produktua kopiatuta ez izateko, kontuan izanda gure produktua desberdina izango dela merkatuan dauden abonoarekiko eta



berezitasun horretan baliatuko dira gure salmentak. Patentea sortu beharko dugu gure produktua ekoizteko baimena izateko.

3. Giza baliabideak beharrezkoak dira gure enpresan, hala nola, sormena, ezagutza eta gaitasun komertziala. Sormena beharrezkoa da publizitate ona egiteko eta horrela, bezeroak erakartzeko. Horrez gain, ezagutza ezinbestekoa da gure abonoa sortzeko, eta horretarako, abonoaren inguruan dakien espezialista bat kontratatuko dugu guri laguntzeko eta bezeroek eskatzen duten abonoa ekoizteko. Gaitasun komertziala izatea ere oso garrantzitsua da bezeroek gure produktuaren beharra dutela sinestarazi behar diegulako.

4. Bukatzeko, finantza baliabide ezberdinak erabiliko ditugu: Lehenik eta behin, ordaintzeko modu ohikoena erabiliko dugu, hau da, hilabete bakoitzeko lau egunean langileen nominetan ingresatuko dugu haien soldata. Gainera, hamalau paga izango dituzte urtean zehar. Kontuan izanda soldata pizgarriak izango dituztela (horrela langileen produktibitatea eta enpresaren produktibitatea igo egingo da, langileen esfortzua eta produktuaren ekoizpena handitu egingo delako) jasotako soldatarekin ados ez badaude, erreklamatzeko aukera izango dute.

Gure merkatua zabaltzeko beharko dugu etekinak maximizatzeko, lehenik eta behin, nazioarteko enpresa bilakatu beharko gara, hau da, nazio osoan ekoitzi eta salduko duen enpresa bat, kontuan izanda gure produktua ekoizpen kalitatea handitzen duela eta arrakasta izango duela estimatzen dugula.